

DEIALDIA, OFIZIAL ADMINISTRARIAREN ETA OFIZIAL ADMINISTRARI OSAGARRIDUNAREN 42 PLAZA OPOSIZIO BIDEZ BETETZEKO, IRUÑEKO UDALAREN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOEN ZERBITZURA ARITZEKO.

KALIFIKAZIO-EPAIMAHAIA ALDATZEA

Giza Baliabideetako zuzendariak honako ebazpen hau eman zuen 2025eko urriaren 30 ean:

Bat etorrita Iruñeko Udalaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzura aritzeko ofizial administrariaren eta ofizial administrari osagarriaren 42 plaza oposizio bidez betetzeko deialdiaren oinarrien bosgarren oinarriarekin –deialdi hori Tokiko Gobernu Batzarraren 2025eko maiatzaren 22ko erabakiaren (7/RH) bidez onetsi zen, eta 2025eko 112. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, ekainaren 5ekoan, argitaratu zen–, honako hau EBATZI DUT:

1.–Epaimahaia aldatzea, jarraian aipatzen den behin betiko osaera ezarrita:

Epaimahaiburua: Antonio José Quesada Arraiz, Iruñeko Udaleko Ogasuneko eta Kontratazio Publiko Arduratsuko Alorreko idazkari teknikoa.

Epaimahaiburu ordezkaria: Arantxa Campo Mayo, Iruñeko Udaleko Giza Baliabideetako Alorreko idazkari teknikoa.

Epaimahaikidea: Mónica Lana Elola, Iruñeko Udaleko Hiri Kontserbazioko eta Osasuneko Alorreko idazkari teknikoa.

Epaimahaikide ordezkaria: Eva Echarri Osinaga, Herritarren Segurtasuneko eta Bizikidetzako Alorreko idazkari teknikoa.

Epaimahaikidea: Paloma Sánchez Ruiz, Iruñeko Udaleko legelaria.

Epaimahaikide ordezkaria: Paula Unanua Albéniz, Iruñeko Udaleko legelaria.

Epaimahaikidea: Ángel Ruiz López, Iruñeko Udaleko Langileen Batzordeko ordezkaria.

Epaimahaikide ordezkaria: Koldobika Muñoz Cortés, Iruñeko Udaleko Langileen Batzordeko ordezkaria.

Idazkaria: Beatriz Martínez Buldain, Iruñeko Udaleko Giza Baliabideetako eta Antolaketako goi-mailako teknikaria.

Idazkari ordezkaria: Raquel Pérez García, Iruñeko Udaleko Giza Baliabideetako eta Antolaketako goi-mailako teknikaria.

2.- Agintzea ebazpen hau Iruñeko Udalaren www.pamplona.es/eu webgunean argitara eman dadin.



Ebazpen honen aurka honako errekurtsio hauetako bat paratzen ahal da:

- BERRAZTERTZEKO errekurtsioa, egintza gauzatu duen organoari zuzendua, HILABETEKO epean, ebazpen hau Iruñeko Udalaren webgunean argitaratu eta biharamunetik aitzina.
- GORA JOTZEKO errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, HILABETEKO epean, ebazpen hau Iruñeko Udalaren webgunean argitaratu eta hortik aitzina.
- ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-errekurtsioa, Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, BI HILABETEKO epean, ebazpen hau Iruñeko Udalaren webgunean argitaratu eta biharamunetik aitzina.

Iruñean, 2025eko urriaren 30 ean.- Giza Baliabideetako Alorreko zuzendaria, Xabier Burgui Vergara.